



Gazteak globalizazioaren aurrean

Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK.
- ETIKA.

HELBURUA

- Gaurko globalizazioak gazteei ere eragiten diela jabetzea.

EKONOMIAREN ARLOAN, zerekin du zerikusia globalizazioak? Lehenengo erantzun errazena zera da: enpresa asko herrialde bat baino gehiagotan zabaldua egotearekin eta kapitala munduko toki askotan inbertitzearekin.

Baina, globalizazioak ekonomiari soilik eragiten dio? Galdera horri geure hurbileko errealitatea aztertuz erantzun diezaiokegu. Horretarako, fitxa honetan eskaintzen zaizkizuen taulak bete beharko dituzu.



1. Idatzi telebistan, bideoan nahiz zineman ikusi dituzun azken hamar filmen zerrenda. Gogoratu baduzu, jarri nongo filmek diren ere.

Izenburua
Euskarria (bideoa, zinema, telebista...)
Nazionalitatea



2. Orain, idatz itzazu zure hamar musika talde edo abeslari gustukoena. Idatzi alboan nongoak diren eta zein hizkuntzatan abesten duten.

Talde edo abeslariaren izena
Nazionalitatea
Erabilitako hizkuntza



3. Azkenik, zeintzuk dira gustukoena dituzun hamar jakiak? Bete taula eta saia zaitez zehazten beren jatorria.

Janaria
Jatorria

Emaitzak aurrean dituzuela, erantzun hurrengo galderei:

- Zein herrialde errepikatu da gehien? Zergatik ote?
- Zure ikaskideen emaitzak eta zeureak desberdinak al dira? Zergatiak.
- Uste duzu beste herrialdeetako gazte askok zeure gustu berdina dituztela?
- Ondorioak.